2024ko ABENDUKO BERRADISKIDETZA

Sarrera oharra

Arrasti on, senideok.

Abenduko Adiskidetza Sakramentua ospatzeko alkartu gara, oraingoan Bizkaiko gure Eleizea gogoan izanik, bere 75. urtea ospatzen dihardualako. Horren inguruan egingo dogu gure otoitza, gure hausnarketea, eta eskatuko dogu gure bihozbarritzea. Bai?

Gogoa egiten hasteko, pare bat, hiru, itaun:

—Gure sinismena, **Eleizbarrutiagaz lotuta** ikusten dogu, ala gitxi edo ezerez ardura deusku Eleizbarrutiak?

—Sinismena bizi izan eta ospatu ahal izateko, beharrezko gauza dala uste dogu eleiz alkarte hau, eta beste guztiekaz bat egiten gaituan Eleizbarrutia, eta halantxe bizi dogu?

—Gure eleiz alkarteak eta Eleizbarrutiak, *beharrezko* gaitula-eta, geure astitik eta geure dirutik ere laguntzen deutsagu, ala «*Eleizeak diru asko dauka*» esanez saihesten dogu eurekaz daukaguzan betebeharrak?

Hausnartu daigun unetxo baten.

…/..

Sarrerako kantua (*Lehenengo kandelea isiotu*)

Zatoz, Jauna! Maitasunez gu bete:
jendeek elkar ezin hartu dute.
Zatoz, Jauna! Zuk bat egin mundua:
Etor bedi zure erreinua!

Abadearen agurra

† Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

—Amen.

† Adiskidetzera deitu gaituan Jauna izan bedi zuekin.

—Eta zure espirituarekin.

Salmoagaz otoitzean (jesarrita)

Egin daigun bat Jesusen aurretikoek Jerusalemeko tenplura bidean pozez beterik abesten eben salmo honegaz. Galdetu deiogun geure buruari ea poztasun ber-bera somatzen dogun eleizarako bidean.

R/. Zure etxera goaz, Jauna,
hauxe da poza daukaguna.

Ha poza nirea, esan eustenean:
«Goazen Jaunaren etxera!»
Hona orain nire oinak
zure ateetan, Jerusalem. R/.

Jerusalem, uri lez ondo eraikia,
beragan sendo batua! R/.

Hara igoten dabe leinuek, Jaunaren leinuek,
Israelen lege danez, Jaunaren izena goratzera.
Han dagoz ezarriak auzi-mahaiak,
Daviden jauregiko mahaiak. R/.

Lk 19, 1-10

Ea ebanjelioko pasarte honek lagundu leigun gure egoerea aztertzeko, bihozbarritzera mogitzeko, eta errukitsua dogun Jainkoagaz adiskidetzeko eta senideen begira jarteko.

Adi: Zer da Zakeo? Zelan begiratzen deutso Jesusek? Jenteak (Jesusen inguruan joan arren) zer dino Zakeori buruz? Zer dino Jesusek, eta zelan erantzuten dau Zakeok?

Egin deiogun harrerea Aleluia abestuz, zutunik.

(Aleluia abestu bitartean, 2. kandelea isiotu)

† Jesu Kristoren ebanjelioa san Lukasen liburutik (*Lk 19, 1-10*)

Aldi haretan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barrura joian. Bazan han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-burua, oso aberatsa. Jesus nor zan ikusi nahirik ebilan, baina ezin eban jendeagaitik, txikia zan-eta. Lasterka aurrerago

joan eta ikondo batera igon eban Jesus ikusteko, handik igaro behar eban-eta.

Jesusek, hara heltzean, gora begiratu eta esan eutson: «Zakeo, jatsi aguro, gaur zure etxean gelditu behar dot-eta». Jatsi zan, ba, berehala eta pozik hartu eban etxean.

Hori ikusirik, danak marmarka hasi ziran: «Pekatari baten etxera joan dok ostatuz».

Zakeok, barriz, zutundurik, Jaunari esan eutson:

—Jauna, nire ondasunen erdiak behartsuei emoten deutsedaz eta, inori ezer ostu badeutsat, lau halako bihurtuko deutsat.

Jesusek esan eutson:

—Gaur heldu da salbamena etxe honetara, gizon hau ere Abrahamen ondorengoa da-eta. Izan ere, Gizonaren Semea galduta egoana bilatzera eta salbatzera etorri da.

Hausnarketea (3. kandelea isiotu)

Egin daigun Zakeoren etxea dala gure Eleizbarrutia edo baita gure Parrokia hauxe ere. Zelan ikusten dogu? *Aberats, diruz gainezka, eta "badaezpadako" baten ardurapean*? Gotzainek eta abadeek gure artean izen onik ez daukelako dinot hori. Bakotxak ikusi daiala zelan begiratzen deutsen Eleizeari, bere parrokiari eta

Eleizbarrutiari…, abadeari, Gotzainari eta eleizkizunetan diharduen laguntzaileei…

Euren aldeko *esker onak* baino, kritikek eta mormoxetek urteten deuskue gehiagotan, eta gatxesteak (kondeneak)?

* Zakeo: ezaguna eta kritikatua

Zakeori buruz jenteak ezin eban eretxi onik euki, zergabatzailea zalako, erromatarren kolaboratzaile.

Baina zeozer onik aurkitu eban Jesusek harengan: bere bila ebilala, zeozer eskatu gura eutsola, bizikeraz aldatu gura ebala-edo…

Eta Jesusek ez deutso lepo emoten, edo ez-ikusi egiten, ingurukoen eretxiari men eginez. Bere etxean *onartzea* eskatzen deutso Jesusek berak.

—Guretzat, eleiz alkartea Jesusegaz topo egiteko ingurua da, eta horretara laguntzen deutsagu alkarri, ala *bakotxa berera* goaz?

—Uste dogu badaukagula zer aldatu Eleizeari buruzko gure eretxi eta jarreretan, eta horren bila goaz eleizkizunetara, ala ohitureari eta betekizunari jarraituz abiatzen gara konbentzimentu handiegirik barik?

—Zelango eskuzabaltasunaz erantzuten dauan Zakeok!: *ondasunen erdia bananduko dau pobreen artean; eta, inori ezer kendu badeutso, halako lau*

bihurtuko deutso...

Hausnartu daigun ea zelango eskuzabaltasunaz jokatzen dogun, eta eskertzen deutsagun Jainkoari eleiz alkartearen bitartez ondasunak behartsuekaz partekatzeko emoten deuskun aukerea.

Aitaren besarkadearen bila urten

Urten daigun, ba, Jesusen bila, eta hartu daigun haren besarkadea abadearen eskutik, haren aurrean adiskidetzeko gure gogoa agertuz. Esan daigun: **ZABALDU NIRE ESKU-BIHOTZAK, JAUNA**.

(*Abadeak bakotxari, eskuak buru-gainean ezarriz, «Zoaz bakean» esango deutso. Ondoren, danak zutunik dagoazala, parkamen-otoitza esango dau danen ganera:)*

Jainko Aita errukitsuak,
bere Semearen heriotza eta biztuereaz
mundua beragaz baketu ebanak,
eta Espiritu Santua bialdu euskunak
pekatuen parkamenerako,
emon deizuela, Eleizearen bitartez,
parkamena eta bakea.
Eta neuk parkatzen deutsuedaz zuen pekatuak
Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren
izenean.

Adiskidetza keinua alkarri

Jainkoagandik hartu dogun besarkadea

alkarregaz partekatzeko gogoa daukagunez, emon deiogun bakea alkarri…

ESKARIAK (4. kandelea isiotu)

Jainkoak gure etxeaganako, gure eleiz alkarte eta Eleizbarrutia eta zerbitzarienganako, esker onekoago bihurtzeko gogoa biztu dau gugan. Jo daigun eskarietara, gogo horrek luzaroan iraun daian gugan:

—Eleizbarrutiaren alde: aurkitu daizan gugan seme-alaba arduratsuak, kolaboratzaileak, ardurakideak, eta diruaz ere laguntzen dabenak, *eskatzen deutsugu, Jauna*.

—Gure eleiz alkartearen alde: gure sinismena ospatzeko behar dogulako; bakotxaren zerbitzua itxaroten daualako; eta ondasunak behartsuekaz partekatzeko aukerea emoten deuskulako, *eskatzen deutsugu, Jauna*.

—Adiskidetzeko gogoa azaldu eta ospatu dogunok, gure ohituretatik harago joateko erea aurkituz, bilatu daiguzan Eleizbarrutia ezagutzeko bideak, haregaz eskuzabal izatea, eta harengandik hartzen dogun guztia eskertzea, *eskatzen deutsugu, Jauna*.

—Guzti hau gogoan izanik, aztertu daigun eleizkizunetan hartzen dogun lekua, emoten dogun limosna, urteko familia-kuota eta zerbitzariez

dogun jarrerea, *eskatzen deutsugu, Jauna*.

Batu daiguzan gure asmo eder guztiok Jesusen otoitzean, harek irakatsitako otoitza alkarregaz esanez:

GURE AITA…

Amaierako oharra

Jainkoa doakoa da. Ez deusku damutzerik ere eskatzen, ez ezelango agintzaririk. Doakoa da haren parkamena, haren besarkadea.

Baina haren gozoa izan gura badogu, gure bizikeran, egunerokoan, zeozer aldatu dala ikusiz baino ez dogu lortuko.

—Beti-betiko lekuan nago eleizan, ala egoereak naroa leku baten edo beste baten jartera?

—«Alkarren Barri» aldizkaria irakurteko irrikaz egoten naz, Eleizbarrutiko barriak jakiteko?

—Egiten diran deiei arretaz entzun eta erantzuten deutset?

—Caritasen *bazkide* eginda nago?

—Laguntzen dot diruz ere parrokiaren beharrizanetan?

—Prest nago zerbitzuren bat garatzeko?

—Eskertzen dot alkarteko zerbitzarien lana, zerbitzua?

…/..

Jarrerok geure egunerokoan ikusi behar izango geukez. Itzi deiogun, ba, Espirituari gugan lan egiten; jarri gaitezan egunero bere eskuetan, otoitz gartsuan.

Abestia

Zatoz, Jauna! Hor gabiltza gauez gau:
piztu gugan fedearen sua.
Zatoz, Jauna! Arg*i e*zazu mundu hau:
Etor bedi zure erreinua!

Onespena

† Jauna zuekin.
—Eta zure espirituarekin.

† Bedeinka zaizela Jainko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak † eta Espiritu Santuak.
—Amen.

† Adiskidetu zaitue Jainkoak. Zoaze Jaunaren bakean.
—Eskerrak Jainkoari.